

# Alternatibak Martxan Jarri!

## Errausketarik Ez!

Uda hasieran aditzera eman genuen, eta halaxe egin dugu.

Antiguako komertzioekin kanpaina bat egitera gindoazela esan genuen eta halaxe egin dugu.

Errausketaren aurkako eta Alternatibak Martxan Jartzeko aldarrikapena gure auzoan zabalduko genuela esan genuen eta halaxe egin dugu...

...eta Auzoak erantzun digu. Arrakasta itzela izan dugu:

**140** komertziotatik **127**-k babesa eman digute.

Errausketaren eragin kaltegarriak nabarmendu, Alternatiben azalpena eman, hauen mundu mailako hedapenaren berri eman eta Añorgako Cementos Rezola enpresak berriki jaso duen zabor toxikoen errekuntzarako baimena salatzen du Atxikimenduak bildu dituen testuak.

Orain Udaletxe eta Foru Aldundiko agintariei dagokie hau baloratzea. Baina hemendik abisu bat helarazi nahi diegu hori egin aurretik:

Konturatu al zarete jendeak zuen proiektu kaltegarri hauei buruz informazioa jaso ahala herritarrak zeinen kontra dituzuen?

Zuen propaganda hutsalari eta informazio ezari guk horrekin egiten diogu aurre, informazioarekin hain zuzen ere. Eta argi eta garbi, zenbat eta jendea informatuagoa egon, orduan eta babes handiagoa hartzen dute zentzudunagoak diren proiektuek, zuen interes ilunei kontrajartzen zaizkien Alternatibek alegia.

Antiguako Auzoak, beste behin ere, Errausketari Uko egin eta Alternatibak Martxan Jar ditzazuen ozen eskatzen dizue.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin lanean aritu diren herritar guztiei eta babesa eman diguten komertzio guztiei ere. Lortuko dugu!

Antiguok Errauskailuari? UKO!  
2008ko Urriaren 7an.